



Pasaden ostiralean, Egoitz Coto Barakaldoko euskal presoaren senideek ezusteko bat izan zuten bisitara bidean. Burgos aldean, kotxeko gurpil batek lehertu zitzaien. Zorionez ez zuten ezeren aurka jo eta senideak ondo daude. Kotxea garaje batean utzi ondoren, bidaiarekin jarraitu ahal izan zuten, beste kotxe batekin. Etxeretek sakabanaketa politika salatu du eta honek biktima gehiago eragin ditzakela nabarmendu du.

#### **Etxeraten oharra:**

ETXERAT. Egoitz Coto euskal preso politikoaren senideek ezustekoa jasan zuten joan zen ostiralean, errepidean, Burgos aldean. Egoitzen bikotea, haien alaba eta beste bi senide Granadako espetxerako bidean (780 km) kotxean zijoazela, gurpila lehertu zitzaien. Zorionez ez zuten gainontzeko minik hartu eta kotxea garaje baten utzi ondoren, beste kotxe baten bidaia jarraitu zuten.

Dispertsioa biktima berrien zain da. Duela 28 urte diseinatu zeneko biolentzia bera aktibo mantentzen duen espetxe politikak, orain arte sortu dituen zigorgabetasun berdinarekin, biktima gehiago gehitu ditzakeelako. DispertsioaSTOP!